

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Diputatu Nagusiaren 322/2020 Foru Dekretua, urriaren 9koa. Onestea nekazaritza ustiategiara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako 2020ko laguntzen aparteko deialdia, apirileko eta ekaineko ekaitzek kaltetutako bideak konpontzeko**

Diputatuen Kontseiluren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez, nekazaritza ustiategiara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzak arautzeko oinarriak onetsi ziren, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Planaren esparruan ("M04: aktibo finkoetako inbertsioak" neurriaren barruan dago jasota).

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuak oinarri arau horiek aldatu zituen, haietan agertzen ziren lege erreferentziak eguneratzeko eta indarrean zegoen araudira egokitzeko, eta, gainera, laguntza horien 2018ko deialdia onetsi zuen.

Apiriletik ekainera bitartean, Covid-19aren osasun krisiaren ondoriozko konfinamenduekin batera, ekaitz puntual gogorrak izan ziren, oso denbora gutxian ur asko bota zutenak, eta Arabako Foru Aldundiaren Bide Erregistroan jasotako eta Arabako Lurralde Historikoko hainbat erakunderen titulartasuneko hainbat bide kaltetu zituzten.

Aldi horretan, landa bideak zaintzeko zerbitzua berrezarritakoan, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikariak bideak ikustera joan ziren, euriteek kalterik eragin ote zuten eta kalte horiek zein ziren egiaztatzeko.

Bideen titular diren erakundeek konponketak egiteko betebeharra izateak arazo ekonomikoa sortu du; izan ere, egoerari aurre egin behar izan diote eta zenbait obra derrigorrean egin, berriz ere erabili ahal izan zitezen bide horiek nekazaritza ustiategiara sartzeko.

Nekazaritza Sailak Landa Bideak Erabili, Zaindu eta Hobetzeko 6/95 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatzen duenez, Arabako Foru Aldundiak toki erakundeentzako laguntza lerroak ezarri behar ditu, bere erregistroan dauden bideak kontserbatu eta mantentzeko.

Arabako Lurralde Historikoko bide sarea kontserbatzeko helburuarekin, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako landa bideak mantentzera bideratutako "gauzatan emandako laguntzen" modalitateko laguntzak arautzeko oinarriak onetsi ziren, eta, administrazio, funtzio eta aurrekontu ekonomia dela eta, zehaztu egin ziren urtero deialdian parte har dezaketen Arabako Lurralde Historikoko eremuak eta azpieremuak.

Laguntza horren 2020ko deialdian, dagokion urteko laguntza eskaera egiteko aukera duen zonaldean dagoen Oteoko Administrazio Batzarra izan ezik, eskaera txanda zuten gainerako erakundeei ez zieten kalterik eragin apiriletik ekainera izandako ekaitzek.

Martxoan ez zen gauzatu nekazaritza ustiategiara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzen 2020ko ohiko deialdiaren proposamena, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Planean ("M4.3: aktibo finkoetako inbertsioak" neurriaren barruan dago jasota); izan ere, haren oinarri zen "Nekazaritza azpiegituren hobekuntza" 40.01.01.46.01.762.90.01 aurrekontu partidari zegokion kreditu atxikipena egin baitzuen Finantza Zerbitzuak, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiko egoera deklaratzearen ondorioz.

Covid-19a dela eta Arabako Ekonomia Suspertzeko Plana onesteko egindako aurrekontu doikuntzen ondoren, Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastu aurrekontuetan 150.000 euroko kreditua dago bideak konpontzeko laguntzen deialdi bati aurre egiteko.

Euri jasak direla eta hondatuta dauden bideak kontuan hartuta, Nekazaritza Sailak uste du laguntzen aparteko deialdia egin behar dela zeregin horretarako, soilik Arabako Foru

Aldundiaren Bide Erregistroan dauden bideak egokitzeko, bat etorri Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitako nekazaritzako ustiategietara sartzeko bideak eta landa bideak konpontzeko laguntzen oinarri arautzaileekin. Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori.

Aurtengo apiriletik ekainera bitarteko ekaitzek kaltetutako bide azpiegiturak konpontzeko eta erakunde jabeek izan duten desoreka ekonomikoa arintzeko premian oinarritzen da laguntza deialdi honen aparteko izaera; izan ere, erakunde horiek ezusteko gastu ekonomikoa egin behar izan dute, eta berehala aurre egin behar izan diote, erabiltzaileek unean uneko nekazaritza lanak egin ahal izan zituzten.

Gainera, larrialdi egoeraren eta hark eragin duen ziurgabetasunaren aurrean, erakunde askok berehala egin dituzte obrak, konpontzeko edozein laguntza eskaera egin aurretik.

Horregatik guztiagatik, eta egoera horren aurrean, Garapen Zerbitzuak uste du aparteko baldintza batzuk bete behar direla aparteko laguntza horiek arautzeko: diruz lagundu daitekeen zenbateko gisa onartu beharko dira 3.000,00 eurotik (BEZa barne) beherako zenbatekoa duten obrak; eskabide epea ireki baino lehen egin diren obrak onartu beharko dira; onuradun izan daitezkeen erakunde guztiek jaso beharko dute dirulaguntza, eta laguntza eskatzeko epea ohi baino laburragoa izan beharko da onuradunek laguntza lehenbailehen jaso ahal izan dezaten.

Dirulaguntzaren gehieneko ehunekoari dagokionez, laguntzaren oinarri arautzaileek ehuneko 60ko oinarriko dirulaguntza ezartzen dute, eta fenomeno naturalek kaltetutako azpiegiturak konpontzeko laguntza bada, ehuneko 10 handitzen; hau da, dirulaguntza ehuneko 70ekoa izan behar da.

Hala ere, erakunde onuradun bat bera ere ez dadin geratu dirulaguntzarik gabe, horrek aurrekontu desoreka arindu ezin izatea ekarriko bailuke, beharrezkoa da deialdi honetan aurreikusitako laguntzak norgehiagoka prozeduraren bidez ematea. Laguntza eskaerei dagozkien finantza premiek laguntza horretarako aurrekontu erabilgarria gaintitzen badute, aurrekontua onuradun guztien artean banatuko da proportzionalki.

Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan 150.000,00 euroko kreditua dago laguntza honen deialdia egiteko.

Aginduzko txostenak aztertu dira. Horregatik, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritza ustiategietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako 2020ko laguntzen aparteko deialdia, apirileko eta ekaineko ekaitzek kaltetutako bideak konpontzeko, bat etorri Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileekin eta dekretu hori aldatu zuen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuarekin. Hona hemen deialdiaren xehetasunak:

– Laguntzaren xede den bide azpiegitura.

1. Aurrez ziren bideak egokitzea (oinarri arautzaileen 3.2. artikulua), hau da, bideen egiturek eta haien elementu osagarriek jasandako kalteak konpontzea.

1. Diruz lagun daitezkeen inbertsioak edo jarduerak hautatzeko kontuan hartuko den taldea eta diruz lagun daitezkeen gastuaren mugak:

1. taldea (ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako bideak konpontzea).

Apiriletik ekainera bitartean izandako ekaitz handiek kaltetuko bide multzoa soilik.

Bigarrena. Onestea 150.000,00 euroko kreditu erreserba, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko "Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea. Deialdi berria" 40.01.01.46.01.762.90.02 partidaren kontura, honako urtealdi honetan:

• 2020. urtea: 150.000,00 euro (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105.3427/000).

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

Hirugarrena. Salbuespen hauek ezartzen dira Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitako laguntzaren oinarri arautzaileei dagokienez, bai eta Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuaren ondorengo aldaketari dagokionez ere:

1. Erakunde onuradunak: Dirulaguntza hau jaso ahal izango dute 2020ko apiriletik ekainera bitartean euri jasen ondorioz kalteak izan dituzten erakundeek, zerbitzu horretako teknikariek egiaztatu ahal badituzte.

2. Inbertsioak hautatzeko irizpideak: Laguntza arautzen duten oinarrien 8. artikulua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitekeen inbertsiori buruzko irizpidea ezartzeko; izan ere, irizpide hori, laguntzaren aparteko izaeragatik beragatik, inplizituki zehaztuko da erakunde onuradun izateko txostenaren arabera.

3. Diruz lagundu daitekeen gutxieneko aurrekontua: 500,00 euro (BEZa barne).

4. Egindako obraren frogagiriak onartzea: 2020ko maiatzetik aurrerako fakturak onartuko dira.

5. Dirulaguntzaren ehunekoa: diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70eko dirulaguntza.

6. Deialdi honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira.

Laguntza eskaerei dagozkien finantza premiek laguntza horretarako aurrekontu erabilgarria gainditzen badute, aurrekontua onuradun guztien artean banatuko da proportzionalki.

Laugarrena. Laguntzaren finantzaketa.

Laguntza horietara bideratutako baliabideak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontutik baino ez dira etorriko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko tokia eta epea.

– Aurkezteko lekua: Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra. Hori ez da oztopo izango Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko.

– Aurkezteko epea: Hamar egun baliodun, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Seigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Zazpigarrena. Dekretu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 9a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**